

Joseba Sarrionandiak argitara eman du Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu titulurako idatzitako saiakera

2015/12/03

Joseba Sarrionandia idazleak argitara eman du Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluko bosgarren ediziorako idatzitako saiakera.

Lapur banden etika ala politika izenpean, liburuak biltzen ditu, batetik, aditu tituluko ikasleen artean eztabaidatzeko

Sarrionandiak proposatutako idazlana, bestetik, oinarrizko testu horri zenbait ikaslek egindako ekarpenak, eta, azkenik, idazleak berak emandako ondorengo erantzunak. Saiakeran, idazle durangarrak hausnarketa egiten du Euskal Herriko politikan egin den ibilbideaz. Pamiela argitaletxeak kaleratu du liburua eta Durangoko Azokan jarriko da salgai.

Liburua aurkeztu da Donostian, hilaren 2an, eta bertan egon dira Julen Arexolaleiba eta Nekane Goikoetxea Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasleak eta Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) aditu tituluko koordinazioko taldekoak; eurekin batera, prentsurrekoan egon da Iban Arantzabal Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusia eta EKTko ikaslea.



Joseba Sarrionandiaren liburuaren azala.